



# Mendizabal eta Arozena aurrez aurre I. Emakumea Pilotariko finalean

**TOLOSALDEA** ▶ Anoetarra eta lizartzarra bihar ariko dira Azpeitiko Izarraitz frontoian euren bikoteekin

**KADETEAK** ▶ Gazteen mailako finala ere jokatuko dute; Zizurkilgo Maitane Aburuza izango da bertan ▶ 6



Finalera nor joan erabakitzeko Amasako pilotalekuan izan ziren final-laurdenak. M. SOROA



## Segi auziko epaiaren aurkako giza katea

**TOLOSALDEA** ▶ Tolosan 50 lagun inguruk giza katea egitea lortu zuten atzo iluntzean Triangulo plazan, Espainiako Auzitegi Gorenak Jarrai, Haika eta Segi gazte erakundeen aurka hartutako erabakia salatzeko, «talde terroristak» direla baieztatzen duen epaia, hain zuzen ere. Amnistiaren Aldeko Mugimenduak borroka egunera deitu zuen atzo, baina Baltasar Garzon Espainiako epaileak debekatu egin zituen mobilizazio guztiak; haatik, Ertzaintzak ez zuen eskualdeko ekitaldia debekatu, furgoneta bat bertan izan bazen ere. I. GARCIA ▶ 4

**TOLOSALDEA** ▶

## Musika eta antzerkia gaur eta bihar Tolosan eta Zizurkilan

Bide Ertzean, 'Cuatro bromas y un funeral' eta 'Ahatetxo itsusia' ▶ 3-4

**TOLOSA** ▶

## Odriozola aske uztea eskatzeko manifestazioa

Etzi, 19:00etan  
Triangulo plazan ▶ 2

Amestu izan duzun...

**MERKEALDIA**

**Premier** koltxoia  
Gama altuko koltxoia gerrialdeko errefortzuarekin

**Serta**

**TIENDAS bede**  
sueños de calidad  
[www.beds.es](http://www.beds.es)

Lizardi plaza, 2  
20400 Tolosa  
Tel.: 943 652 901

Peña y Goñi, 16  
20001 Donostia  
Tel.: 943 320 358

Tolosa etorbidea, 19  
20018 Donostia  
Tel.: 943 312 784

[www.loaldiak.com](http://www.loaldiak.com)

Bezero arreta telefonoa: 922 560 221  
12 hilabeterainoko finantziazioa interesik gabe.  
Kate aintzindaria atsedean arloan 192 DENDEKIN.

**%30** erainoko  
**DESKONTUA**

## UDALA ▶

# Hirigintza eta obra zerbitzuak jasotzen ditu kexa gehien

Udate zerbitzuaren azken hiru hilabeteetako datuak biltzen dituen txostena aurkeztu du ekimenaren koordinatzaileak

## ESTI EZEIZA

Gero eta jende gehiagok era-biltzen du Udate zerbitzua. Joan den urteko urtarrilean karriri zuen martxan ekimen hau Udalak. Honekin, administrazioaren eta herritarren arteko hartu-emanak erositzea lortu nahi zuten. Horretarako, tolosarren kexa eta iradokizunak biltzen ditu telefono eta internet bidez.

Zerbitzuaren jarraipen bat egiteko asmoz, hiru hilabetez behin, Udateko koordinatzaileak Udate zerbitzuari buruzko txosten bat prestatzen du. Azkenak, irailtik abendura bitarteko datuak biltzen dituelarik. Beraz, azken txostenaren arabera, 55 txosten jaso dituzte urteko azken hilabeteetan, eta



Hirigintza eta Obra departamentuak jaso ditu kexa gehien. J. SAIZAR

horietatik 51 erantzunda daude. Erantzundako 51etatik, 21 epe barruan egin dira, eta gainera 30ak epeaz kanpo. Bestalde, egun, 4 espediente irekita daude.

Zerbitzuaren bilakaerari da-

gokionean, honek ez duela behar egin azaldu dute. Alderantziz, zerbitzuaren aurkezpenaren ondorengo maila berekoa izan da jendearen parte-harretzea.

Zerbitzuaren kudeatzaileek

azaldutakoaren arabera, Udatek ez ditu emandako erantzunak kualitatiboki baloratzen. Beraien ustetan, «hori aurrerago egin beharreko gauza bat da, eta oraingoz, departamentu bakoitzak emandakoa bere horretan jasotzen du».

Jasotako iradokizun eta kexak, kasu guztietan, egun bateko epean egin dute jasotzetik dagokion departamenturako bidea, egun berean izan ez denean. Honek adierazten du, departamentura helarazteko prozesuak ongi funtzionatzen duela.

Erantzun epeari dagokionean, departamentuetako arduradunen inguruko presioa arindu egin du Udate koordinatzaileak. Hala, hurrengo hiru hilabeteetan ere, arduradunen gaineko presio hori areagotu egingo dela, eta emaitzak ebaluatu egingo dituztela adierazi dute Udalekoek.

Sailetik sailera ezberdina izan da kexek eta iradokizunek izandako eragina. Hala, Hirigintza Obra eta Zerbitzuetan jaso dute espediente gehien, 28 denera. Ondoren, Udaltzaingoa legoke, hauek 19 jaso baitituzte. Aurreko hiruhilabetearekin alderatuta, joera mantentzen da. Urrutirago bada ere, ondoren datoz Euskararena eta Kirolena, kulturarenarekin batera.

## POLITIKA ▶

## Pello Odriozola aske uzteko eskatuko dute etzi

19 urte daramatza kartzelan, nahiz eta 1993an bete zituen zigorraren 3/4ak

## E. EZEIZA

Etzi betetzen dira 19 urte Pello Odriozola euskal preso politiko tolosarra atxilotu zutenetik. Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideen esanetan, «2003. urtetik kalean aurkitu behar zuten Pellok, zigorraren hiru laurdenak bete baitzitu». Beraz, hau salatzeako manifestaziorako deia luzatu dute Ezker Abertzalekoek. 19:00etan izango da, Triangulotik abiatuta.

Alcala Meco, Herrera de la Mancha, Martutene, Valdemoro, Ourense eta Lugoko Bontze espetxeetatik pasa da Odriozola 19 urte hauetan. Gainera, Amnistiaren Aldeko Mugimenduko luzatu dituen datuen arabera, horietatik ia lauetan, Ourenseko espetxean auskal preso politiko bakarra izanik, isolamendua erabatekoa izan da. Dena den, denbora honetan, «bizi baldintza duin batzuen alde borrokan, espetxe barruko egoera aldatu nahian eta isolamenduari aurre eginez» aritu da.

Odriozolaz gain, egoera berean aurkitzen diren beste 140 preso baino gehiago askatzeko exijituko dute igandeko ekitaldian. Bestalde, etzi, 82 egun egingo ditu Iñaki de Juana euskal presoak gose greban dagoenetik, eta hau ere kalean uzteko exijituko dute Triangulora bertaritzen direnek. Donostiar presoaren moduan, sendaezinezko eta gaixotasun larriak dituzten beste sei preso dauka kartzelan.

## KULTURA ▶

## Tolosako babarruna eta sukaldariak ere izango dira Sabadellen ospatzen den sukaldaritza astean

Gaur inauguratuko dute Mendebaldeko Haranen Turismo Partzuergoak bultzatutako ekimena

## ERREDAKZIOA

Gaur Tolosako babarrun, gozotegi, sukaldari eta erretegiak Sabadellen (Herrialde Katalanak) izango dira, hemengo produktua ordezkatzeko.

Egun hauetan *Setma cuina valles* inauguratzen da, eta han

ere dastatu ahal izango dituzte, Tolosari nortasuna ematen dioten produktuak. Ekimen hau Mendebaldeko Haranen Turismo Partzuergoak bultzatzen du. Hau 23 herrietako enpresari eta sukaldariak osatzen dute. Elkarte honen helburua zonalde hori gastronomo-

miaren bitartez ezagutzera ematea da. Hala, aste honetan zehar hainbat ekitaldi gauzatu dituzte: sukaldaritza ikastaroak, dastatzeak...

Bestalde, herrialdearen ordezkari bezala babarrun txuria prestatuko dute, non hau, Tolosako babarrun gorriare-

kin lehiatuko den, hoberena zein den ikusteko.

Jaialdiaren amaitutakoan, hara joandako sukaldariak esperientzia nolakoa izan den kontatuko dute, eta honekin batera, Tolosako babarrunak izan duen erantzuna agertuko dute.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

**Gipuzkoan 50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**ALEGIA ▶**

**Intxurrekoen  
asteburuko  
partidak**

Lurraldekakoek Urnietakoen kontra jokatuko dute bihar, 17:30ean Urnietan bertan. Neskek Idiazabalaren aurka dute Alegian bihar, 19:30ean. Kadeteek berriz, Alegian jokatuko dute Behobiaren aurka igoera fasean, etzi 14:45ean. Kadeteak izan dira asteburuan galdu zuten bakarrak: 5-0 Zumaia-aren kontra. Lurraldekakoek Amarozen aurka 7-1 irabazi zuten, eta neskek, berriz, 2-1 garaitu zuten Idiazabal A.

**TOLOSA ▶**

**Evil Code eta  
Legen Beltza  
Bonberenean**

Evil Code talde tolosarraren eta Legen Beltza azpeitiarren kontzertuak izango dira gaur Bonberenean 22:30ean.

**VILLABONA ▶**

**Loatzoren ehiza  
txapelketarako  
izen-ematea**

Loatzo elkarteak antolatutako ehiza txapelketa otsailaren 3an izango da. Interesatuak datorren astelehena, hilak 29, baino lehen eman dezakete izena Villabonako Eizmendi armategian.

**TOLOSA ▶**

**Oinkariko  
zozketan zenbaki  
sartua 8.484 da**

Hilaren 21ean burutu zen ONCERen bidez Oinkari dantza taldearen errifa-egutegiaren zozketa eta zenbaki sartua 8.484 izan zen. Oinkaririk zorianak irabazleari.

**ASTEASU ▶**

**EHNA egiteko  
aukera gaur  
udaletxean**

EHNA egiteko aukera dago gaur Asteasuko udaletxean, hileroko azken ostiraletan bezala, 19:00etatik 20:00etara. Errolda agiria —udaletxean eskatuta—, 3 argazki eta 15 euro eraman behar dira EHNA egin ahal izateko.

**TOLOSA ▶ KULTURA**

**Heldu nahiz gaztetxoentzat  
antzerkiak, gaur eta bihar**

Teatro Estudio antzerki taldearen 'Cuatro bromas y un funeral' izango da gaur ikusgai, eta Maite Frankoren 'Andersen, ahateixo itsua' bihar, Leidor aretoan

**IÑIGO TERRADILLOS**

Bi antzezlanek gozatzeko aukera izango da gaur eta bihar Leidor aretoan, bata helduentzako, eta gaztetxoentzako bestea. Hain zuzen ere, gaur 20:00etan Cuatro bromas y un funeral antzezlan eskainiko du Teatro Estudio San Sebastian taldeak, eta bihar, berriz, gaztetxoek zuzenduriko Andersen, Ahateixo itsusia lana izango da, 17:00etan.

Teatro Estudio antzerki talde amateur bat da. 1964. urtean sortu zuen Donostian, gazte talde batek. Lehenengo 20 urteetan hainbat antzezlanetan parte hartu zuten bertako kideek aktore bezala, eta 1984.etik aurrera bigarren etapa bati ekin zioten. 1988. urtean kultur elkarte bezala hasi ziren, eta euren produkzioekin egiten dute lan Teatro Estudio bezala. Gaur eskainiko duten Cuatro bromas y un funeral



Teatro Estudio antzerki taldeko kideak. HITZA

antzezlan bi zatitan banatuta dago: lehenengo zatia Chejoven El oso-rekin hasten da, Valle Inclan-en Para cuando las reclamaciones diplomaticas lanarekin jarraitzen du eta Ionesco-ren El maestro-rekin amaituko da. Hamar minutuko atsedenaldiri batean hasiko da

bigarren zatia. Dario Fo-ren No hay ladrón que por bien no venga izango da lehendabiziko antzerkitxoa zati honetan, eta bigarrena eta azkena, Tennessee Williams-en Hablame como lluvia y dejame escuchar izango da. Teatro Estudiok emanaldi berezi honekin hainbat an-

tezlan jendaurrean erakutsi nahi ditu, bestela bakarka ez baitira taularitzen motzegiak direlako.

**Gaztetxoentzat, bihar**

Maite Franko idazlearen Andersen, ahateixo itsusia antzezlan ikusteko aukera izango dute bihar gaztetxoek. Obra honetan Andersen bizitza eta lana uztartzen dira, egile honen haurtzarotik hasi eta heriotzarainoko ibilbidea egiten. Antzezlan honen helburua bikoitza da: batetik, Andersen ipuin ederren atzean zer egon liteken eta zergatik idatzi zituen erakustea, eta bestetik, norbere bizipenetan oinarrituta oso istorio polit eta borobilak sor daitezkeela haurrei ikustaraztea. Antzezlanean, aktoreak eta txotxongiloak izango dira Andersen bera eta honek sorturiko hainbat pertsonaia irudikatuko dituztenak.

**TOLOSA ▶ GIZARTEA**

**Udan haur  
errusiarrak  
geure etxean**

I. Terradillos ▶ Umezurtz-etxeetan bizi diren ume errusiarrak harrera familietan hartuz euren osasuna sendotzea helburu duen Bikarte elkarte kideek atzo egin zuten hitzaldibilera Kultur Etxean. Hala udako kanpainaren berri eman zuten, eta haur hauek etxean izateak dakartzan onurak azaldu zituzten. 605 70 90 19 telefono zenbakian lor daiteke informazio gehiago. I. T.



**TOLOSALDEKO  
HITZA.INFO**

**Zeuk idatzi.** Eskualdeari buruzko berriak sartzeko aukera duzu gure webgunean, Zeuk idatzi atalean. Albisteez gain, herriari buruz dituzun iradokizunak edo kezak ere sar ditzakezu. ▶

**iragarki laburrak ▶**

**ALOKAIRUAN**  
**Etxebizita.** Lekunberri 60 m2ko pisua alokatzen dut. Egongela, bainugela, sukaldea eta 2 logela. 679 20 14 60.

**LANA**  
**Harreragileak.** Erakunde publikoetarako. 943 44 48 66.

**Gidariak.** Erakunde publikoetarako. 943 44 48 66.  
**Gitarra-jolea.** Erromeri talde batek gitarrak behar du. 665 70 17 75 (Xabi).

**GALDUTAKOAK**  
**Poltza.** Kirolerako poltsa beltza aurkitu dute Tolosan,

emakumeentzako bainu-jantzi beltzarekin eta igerilekurrako materialarekin. Galdu duenak dei dezala 943 67 02 09 zenbakira.

**BESTERIK**  
**Zakurrak.** 2 hilabeteko arratoi-zakurrak oparitzen ditut. 645 70 68 21.

## ZIZURKIL ▶ MUSIKA



Bide Ertzean taldea zuzeneko emanaldi batean. HITZA

# Bide Ertzeanen 'Non dira' diskoaren lehen kontzertua eskualdean

«Zuzenean asko irabazten du diskoak», dio Imanol Ubeda taldekideak; emanaldia, gaur, Atxulondon 20:00etan

## IMANOL GARCIA

Bider Ertzean talde tolosarrak *Non dira* azken diskoaren lehen kontzertua eskualdean emango du gaur, 20:00etan, Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean. Sarrerak hiru euro balio ditu. Gogotsu daude zuzeneko eskaintzeko. Imanol Ubeda kitarra-jole eta abeslariak azaldu duenez, «Atxulondon ez dut inoiz kontzerturik eman eta oso ondo hitz egin didate leku horretaz».

Zizurkilgo Kultur Etxea taldearen musikari ondo egokitzen dela dio Ubedak: «Gure musika estilo zehatz batekoa esatea baino, entzuteko dela esango nuke. Hau da, ez da dantzarako musika bat, batez ere disko hau. Horrelako areto bat, leku goxo bat, egokiena da gure kantuak entzuteko».

*Non dira* diskoaren zuzenekoira joateko une ona dela dio Ubedak: «Zuzenean asko irabazten du diskoak, intentsitate gehiago dute kantuek. Hasieran abestiek zuzenean nola funtzionatuko zuten kezka kenduta, orain ari gara gozatzeko kontzertuetan». Taldeak kontzertuak ematen daramatzan bederatzitako eskarmentuak ere laguntzen duela



## KONTZERTUA ▶

**Taldea.** Bide Ertzean.  
**Musikariak.** Imanol Ubeda, Joni Ubeda, Karlos Aranzegi, Fran Iturbe eta Joserra Senperena.  
**Ordua.** 20:00etan.  
**Herria.** Zizurkil.  
**Tokia.** Atxulondo kultur etxea.

dio Ubedak «zuzeneko aberatsa egiten».

Kontzertuak bere alde akustikoa eta elektrikoa ditu. «Gustura» daude orain arteko kontzertuan izandako sentsazioekin. Abesti bakoitzak bere istorioa du eta sarrera txiki bat egiten dute abestu aurretik. Izan ere, azken disko honetan Espainiako Gerra Zibilari buruzko hausnarketa egiten du talde tolosarrak. «Kezka pertsonala genuen anaia eta nik», dio Imanol Ubedak. «Ge-

rrako kontuez hitz egin nahi genuen. Pisu hori gainean genuen eta disko honekin gainetik kendu dugu. Asebeste sentsazio hori badugu».

## Tolosan jotzeko «gogoa»

Urriaren egin zuten diskoaren aurkezpena eta ordudik kontzertuak ematen ari dira. Horietako batzuk Katalunian eman zituzten eta han jasotako harri ona azpimarratzen du Bider Ertzeaneko abeslariak: «Taldea euskaldunak ondo hartzen gaituzte, beste taldeekin hitz egiten dugunean ere hori bera esaten digute».

Talde tolosarra ez da kontzertu asko ematen dituen horietakoa. Musikarietako batzuk beste talde batzuetan ere jotzen dute eta horrek agenda lotzeko ere bere zailtasunak ematen ditu. Tolosan diskoak aurkezteko gogoa dute ere, baina hori «ez dago gure esku». Ubedak dioenez, Leidor antzoki berrituan «jotzeko gogoa du» eta espero du aukera izatea. «Oso pozik hartuko genuke proposamena». Zizurkilaren egingo dute baina, eskualdeko lehen kontzertua. Emanaldia etxetik gertu izateak «berezia» egiten duela dio.

## TOLOSA ▶ POLITIKA



Giza katearen une bat, atzo, Tolosako Alde Zaharrean. I. GARCIA

## Segiren aurkako epaia salatu dute 50 lagunek

Giza katea egin zuten atzo Alde Zaharretik AAMk deitutako mobilizazioen baitan

## ERREDAKZIOA

Espainiako Auzitegi Gorenak Jarrai, Haika eta Segi gazte erakundeak «talde terroristak» direla erabaki duela eta atzo Amnistiaren Aldeko Mugimenduak (AAM) mobilizazio egunera deitu zuen *Gazteria independentista aurrera! Hitza eta erabakia askatasunez* lelopean. Tolosan eskualdeko manifestazioa antolatu zuten, baina azkenean Alde Zaharrean zehar giza katea egitea erabaki zuten Triangulo plazan elkartutako 50 lagun inguruk.

Baltasar Garzon Espainiako Auzitegi Nazionalako epaileak debekatu egin zituen atzoko AAMk deitutako ekitaldiak, Askatasunak sustatutakoak zirela argudiatuz. Elkarte hori Espainian legez kanpokoak deitzen, epaileak debekatu egin

zuten ekitaldiak. Haatik, Tolosan giza katea egin ahal izan zuten, Ertzaintzaren furgoneta bat bertan izan bazen ere.

Auzitegi Gorenaren epaia, «proiektu independentistaren kontrako epaia da», AAMren ustez. «Ateak parez pare zabaltzen dizkio Espainiako Gobernuak lan politikoaren kriminalizazio eta jazarpenari. Eta ateak ixten dizkio, bezaz, elkarriketa bidezko konponbideari».

Azken batean, «Euskal Herriaren kontrako eraso» dela dio. «Oso oker daude ezker abertzalearen arazo gisa ulertzen duten horiek». Hala, AAMk «herri gisa erantzun» behar dela uste du. «Bere gazteria babesten ez duen herriak ez du etorkizunik, ez bada sumisioarena, menpekotasunarena eta lotsarena», gaineratu du.

## PRESOAK ▶

## Elkarretaratzeak gaur, presoaren eskubideen alde

## ERREDAKZIOA

Etxerategen presoaren eta iheslarien aldeko elkarretaratzeak deitu ditu gaur, hilabeteko azken ostirala izaki. Iñaki de Juan presoaren egoera ere salatu dute, ostiralero egiten dituzten bezala.

Eskualdean antolatzen dituzten elkarretaratzeak ondorengoak dira: 19:30ean, Alegian, Amezketan, Anoetan, Ibarran eta Tolosan; 20:00etan, berriz, Adunan, As-teasun, Ikaztegietan, Leitzan, Lizartzan, Villabonan eta Zizurkilan.

PILOTA ▶

# Zazpi-Itturri eskolakoak, sendoen IV. Berria Txapelketa

Leitzako Aurrera eta Tolosako Aurrera Saiazekoak ere daude; Tolosaldeko eskolak Udaberrikoan eta Euskadikoan ari dira

NEREA URBIZU

Zazpi-Itturri pilota eskola sendo hasi da Berria Txapelketan: lor daitezkeen tanto kopururik altuena lortu du, 66 egin baitzuten Gernikako Arkupekoen aurka (24). Beraz, hiru partidak irabazi zituzten.

Kadeteen bikotea Sukia-Arzelusek osatutakoa izan zen; gazteetan Ropon-Leunda aritu ziren, eta nagusietan, berriz, Baez II.a Garmendiarekin batera. Kadete amezketarrek 22 eta Gernikakoek 4 tanto egitea lortu zuten. Gipuzkoako txapelidunak dira kadeteen mailan amezketarrak eta agerian gelditu zen hori, partidaren hasieratik. Gazteen mailan, berriz, ezohikoa dena gertatu zen: Gernikako aurrelaria gaixotu egin zen azken unean eta haren ordez kadete bat jarri zuten jokatzeko. Ondo aritu bazen ere, aurrelariak ez zion gehiegi lagundu. Leundak egindako jokoa izan omen zen ikusgarriena. 22-9koa izan zen azken emaitza.

Nagusien partidari gaur egun afizionatu mailan dauden lau jokalaririk onenetarikoak aritu ziren Altzako frontoian, eta 22-11 irabazi zuten. Emaitza on hauekin bigarren kanporaketan dira eskualdekoak, eta otsailaren 25ean jokatu dute Mallabiaren aurka, momentuz, Altzako pilotalekuan. Otsailaren 4an, berriz, Aurrera-Saiazek jokatu ditu IV. Berria Txapelketako lehenengo partidak Danok Lagunak pilota eskolaren kontra. Leitzako Aurrera pilota eskolak Andazperen aurka irabazteagatik, Belatzen aurka ariko dira 2. kanporaketan, otsailaren 24an Hernanin.

Orain arteko lau partidetan Belate, Aurrera, Zazpi-Itturri eta Mallabia sailkatu dira 2. kanporaketarako. 2. kanporaketa eskualdeko biek garaituz gero, 3. kanporaketan elkarren aurka jokatuko lukete martxoaren 16an. Beraz, ez da finalerdian leitzarren eta amezketarren artekorik izatea posible izango.

Beste txapelketak

Euskadiko Kluben arteko Txapelketan ere ari dira eskualdekoak: bai Zazpi-Itturri eta bai Aurrera-Saiaz ere. Asteburu honetan hauek izango dira partidak gure eskualdean: Aurrera-Saiazek bat besterik ez du izango, 22 urte azpikoekin binakakoa, alegia. Honetan Renobalesek eta Telleriak jokatu dute Danok Lagunak eskolakoekin kontra, etzi 12:00etan, Beotibarren. Aurreko astebu-

ruan senior banakakoak irabazi zuten bakarrik.

Zazpi-Itturrikoek garaipen ugari lortu zituzten asteburuan, Euskal Herriko ligan lau partidatik 3 irabazi baitzituzten. Galdutakoa, banakakoan nagusien mailan egindakoa. Ohorezko mailako Euskadiko ligan ere nagusien mailako banakakoan Baezek galdu zuten, baina binakakoan, berriz, Gernikakoekin aurka erraz irabazi.

Asteburuan Amezketan ikus daitezkeen partidak hauek dira: bihar 16:00etan, Legarreta Mallabiakoekin kontra ariko da; jarraian Baez I.a Gasteizkoekin kontra eta bukatzeko Elurbe-Beloki Maetzuko bikotearen aurka. Etzi, berriz, 11:00etatik aurrera binakako bi partida izango dira.

Udaberrikoak da beste txapelketa eta gaur bi partida ikusteko aukera izango da Beotibarren: Aurrera-Saiaz pilota eskolakoekin kadeteen binakakoa eta jubenilen binakakoa, 20:15ean. Aurkariak Hernani eta Beloki izango dira. Aurreko

GARAPENA

Aurrera eta Zazpi-Itturri bigarren kanporaketan dira; Aurrera Saiazek otsailaren 4an jokatu dute lehen kanporaketa



JARDUNALDIA

Asteburu honetan Euskadiko Kluben arteko Txapelketan ariko dira gure eskualdeko pilotariak

asteburuan 5 partidetatik 3 irabazi zituzten. Zazpi-Itturrikoen aurka jokatuak derbia amezketarrek garaitu zuten 22-11. Honetan Aspe-J. Mujika eta Amezketako eskolako Zelaia-Ugartemendia aritu ziren. Zazpi-Itturrik bi partida jokatu zituen eta Aurrera-Saiazen kontrako aipatutakoa irabazi zuten, gazteen mailakoa Añorgakoekin galdu baitzuten.


*Betiko janaria beste modu batera eta erraz prestatzeko*

liburua **DOAN!**

Otsailak 3, larunbata, kartilla + 1. kupoia **berria**rekin

1. ZURE KARTILLA ESKURATU
2. KUPOIAK ITSATSU  
Otsailaren 3tik aurrera, egunero kupoiak argitaratuko dira BERRIAN, guztira 14.
3. KARTILLA OSATZEAN, KIOSKORA ERAMAN eta DOAN jasoko duzu liburua.

Babeslea  Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

**Kazetari lanetarako pertsona bat behar du komunikabide batek.**

- Egunean 6 ordutarako.

**Interesatuak deitu lehenbailehen 661 678817 telefono zenbakira.**

**jantzi hitza**ren jertseak

HITZAren egoitzetan salgai



## IBARRA ▶

## Arau berriak zehaztu dituzte Sendi Ekintzan

Arduradun berriak izendatu dituzte barne funtzionamendua hobetzeko asmoz

M. SOROA

Ibarrako Sendi Ekintza Elkartek aditzera eman duenez elkarteko sagardotegiaren barne funtzionamenduari dagokionez, arau berriak zehaztu dituzte, beti ere, «barne funtzionamendua hobetzeko asmoz».

Arau berrietan lehena da haurren urtebetetze egunean merienda egiten denean 3 euro kobratuko dela lokala erabiltzeagatik. Gauza bera egingo dute sagardotegitik at geratzen diren ekintzak egiteko erabilpenetan.

Bigarren neurria, bai sagardotegiaren gilitza eskuratzeko baita bertako materialaren erabilpena egiteko ere alde aurretik abisatu behar ko zaito horretarako izendatu duten pertsonari. Bestalde, sagardotegia erabili nahi duen orok, gutxienez 8 egun lehenago eman behar du izena.

Neurri hauen eta beste hainbaten berri izateko elkarteko kideek adierazi dutenez, «elkartetik pasatu eta bertan arau berriak irakurtzeko gonbitea egiten dugu». Elkarteko kideek zera azpimarratu nahi izan dute arau hauen harira, «denon artean funtzionamendua hobetzea da helburua».

## PILOTA ▶

## Eskualdeko pilotarien esku dago txapela nork jantzi

Nagore Arozena lizartzarra eta Mainer Mendizabal anoetarra euren bikoteekin I. Emakumea Pilota Txapelketako finalean lehiatuko dira bihar Azpeitian



Finalera nor joan erabakitzeak Amasako pilotalekuan buruturiko final-laurdenetako artxiboko irudia. M. SOROA

MADDI SOROA

I. Emakumea Pilotari Txapelketa amaierara iristear da, bihar jokatuko baita final handia Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan. Eskualdeko bi pilotari ariko dira lehian, batetik, Nagore Arozena lizartzarra Garazi Jaurregirekin batera. Bestetik, berriaz, Mainer Mendizabal anoetarra Eluska Arrondo bikote duela.

Finala irekia izango da, bi bikoteek saio ona egin baitute txapelketan zehar. Bihar, ordea, Mendizabalek eta Arozenak izango dute gilitza, beraien

esku egongo baita txapela irabazteko erabakia. Atzelarien lana erabakiorra izango da, beraz.

Mainer Mendizabalek finalari begira, adierazi duenaren arabera, «final gogorra izango da peloteo askokoa eta tanto luzekoa, luze joko du partidak maila handikoa izango baita». Nagore Arozenak, aldiz, finalaren atarian «finala zail samarra» ikusten duela uste du, izan ere, «Mendizabal indartsu dago; gu ordea, ahaleginduko gara sorpresa ematen».

I. Emakumea Pilotari Txapelketako finalak ukitu berezia

izango du, finala jokatzeaz gain emakume pilotarien jaialdia ere izango baita. Hasteko, Azpeitia eta Zestoako pala elkarrean arteko txapelketa izango da. Ondoren, Gipuzkoako Elkarteen arteko Txapelketa-Kutxa saria izango da, gomazko paletan jokatzen duten kadete neskek txapela nork eskuratu erabakiko dutelarik.

Final horretan izango da Maitane Aburuza zizurkildarra. Aburuzak, Hernaniko taldearekin jokatzen du, izan ere, gure eskualdean ez dago adin horretan palan jokatzen duen neskarik. Hala ere, txapelketan zehar saio bikaina egin du zizurkildarrak, finaleko txartela eskuratzeak isladatzen duen moduan. Eskualdeko gazteak esandakoaren arabera «zaila ikusten dut finala irabaztea, aurkari atzelaria oso ona da eta asko jotzen baitio, gogorra izango da garaipena eskuratzeko».

Mainer Mendizabal Gipuzkoako Federazio teknikariak antolakuntzaren harira adierazi duenez, «I. Emakumea Pilotari Txapelketako finala ospatzeaz gain kadeteen finala egitea ere erabaki genuen, bi finalak ba-

## NAGORE AROZENA

PALA JOKALARIA

«Finala zail samarra ikusten dut Mendizabal indartsu baitago, gu ordea, ahaleginduko gara sorpresa ematen»

## MAIDER MENDIZABAL

PALA JOKALARIA

«Partida gogorra izango da peloteo askokoa eta tanto luzekoa, luze joko du partidak maila handikoa izango baita»

## MAITANE ABURUZUA

PALA JOKALARIA


«Zaila ikusten dut finala irabaztea, aurkari atzelaria oso ona da eta asko jotzen baitio, gogorra izango da»

tera eginez proiektuari gorpuztea emateko eta pilota jaialdia borobilagoa izateko».

## Txapelketa arrakastatsua

Emakumea Pilotari Txapelketa, Emakumea Pilotari proiektuaren barnean kokatzen den kirol federatuko ekintza da. Iazko denboraldira arte neskek Elkarteen arteko Gipuzkoako Txapelketa jokatzen dute. Aurten, ordea, pilotarien joko mailaren arteko ezberdintasunagatik eta lehiaketak interesa gaitzen hasi izanagatik, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak Emakumea Pilotari Txapelketa antolatu du.

Txapelketa amaitzean den honetan, zera adierazi du Mainer Mendizabal Gipuzkoako Federazio Teknikariak balorazioa egin asmoz, «maila ezberdintasuna nabaritu arren jokariak gustura aritu dira eta elkarrekin egoteko aukera izan dute; balorazioa positiboa dela esango nuke». Federazioaren aldetik, aurrerantzean horrelako txapelketak egiten jarraitzeko asmoa azaldu du Mendizabalek, beti ere, «urtetik urtera frogak egin eta gauzak hobere-



## Salgai (Tolosa)

Iurrarendi auzoan etxe zoragarria, 2 solairu. Lorategia. Garaje itxia. Salgai (Anoeta) Pisu polita 78m<sup>2</sup>-koa. Terraza ederra.

## Salgai (Tolosa)

50m<sup>2</sup>. Atiko ederra estreinatzeko guztiz eraberritu ostean.

## Salgai (Tolosa)

Alde Zaharrean pisua estreinatzeko eraberritu ostean. Oso polita.

## Salgai (Araun)

60m<sup>2</sup>. San martin. Pisu eraberritu estreinatzeko. Prezio negoziagarria.

Salgai (Etxarri-Aranatz) Eraikuntza berriko pisua. Sustatzailetik zuzenean salmenta. Trostelekua eta garaje itxia. Tolosa.

Iurrarendi, 3. 3 logelako pisua behar dugu. Bezero eroslea badugu.

943 69 71 96 • 675 705 268  
Korreo Kalea 50

# Leunlan

• Leunketa herdoilgaitzetan • Mate eta ispilu distira

Apatta Erreka industrialdea • Baratzondo kalea, B-9  
20400 IBARRA • Tel.: 943 67 98 08

# MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta  
Bataioak, Jaunartzeak...

## Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

JOSE SAGASTIBELTZA ▶ UDAL LANGILEA IZANDAKOA

# «Gau asko eman ditut lanean, biharamunean lanera joanez»

Jose Sagastibeltza Villabonari omenaldia egingen diote otsailean Udalarentzat egin duen lana eskertzeko



N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Jose Sagastibeltza Villabonak (Leitza, 1943), 27 urte egin ditu Udal langile bezala herriko konponketa ugari egin, eta baita mendia zainduz ere. Bihar omenaldia egitekoak ziren, baina eguraldia dela eta atzeratzea erabaki dute. Ziurrenik otsailean egingen da.

**Lanean hasi zinenean, 1980.**

**urteko urtarrilean, zure lana zein zen?**

Nire lana orduan mendikoa zen. Guarda bezala sartu nintzen. Lan honen barruan ezberhar edo okerren bat egiten zuena zigortzen nuen, aizkora-ekin egurra bota eta lapurretan ibiltzeagatik, edo itxituraren bat mozteagatik... Horregatik, jendea nirekin haserretzen zen. Ez ninduten ikusi nahi izan-

ten. Behin batek zera esan zidan, «guardetxe atarian ikusi baino nahiago dut zerria artaduan ikusi».

**Honetaz gain herrian ere konponketak egiten zenituen.**

Herriko iturgintza ere neronek eramaten nuen. Orduan, gauzak ez zeuden orain bezala prestatuak, dena eskuz egin behar zenuen. Piezak justukoak izaten ziren eta asko begira-

tu behar zenuen. Orduan askotan ura gaez mozten nuen jendea egunez ur gabe gera ez zedin eta gaez aritzen nintzen lanean. Gau asko eman ditut lanean, biharamunean lanera joanez, berdin. Orokorrean andreak asko lagundu dit.

**Lanean ibilitako gau txarren bat gogoan al duzu?**

Gau txar asko ditut gogoan, Adibidez, orain dela urte batzuk harakindegiaren azpian hodi nagusi bat lehertu zen Gabon Gauean. Goizeko 04:30ean amaitu nuen. Kafe bat hartu eta noizbait berotu nintzen, baina gau hartan niretzat ez zen afaririk izandu.

**Mendiko lana noiz utzi zenuen?**

Duela 15 urte inguru. Dena ez nuen utzi, pinuak markatzera joaten bainintzen. Orduan herrian zentratu nintzen eta konponketak egiten nituen: ustubideak, hoditeriak... ateratzen zen lan guztia.

**Mendiarekiko jendearen jarrera aldatu al da?**

Norberak errespetu asko hartu du. Orain guarda bat bada, baina ez da behar, lehen bezala lapurretarik ez baita egiten. Mendian jendearen jarrera aldatu egin da. Lehenago 5 katagorri ikusten baziren, orain 100 ikusiko dituzu. Errespetuarengatik da hori. Gazteek katagorriek ez die tirorik botatzen, gauza polita baita. Lehenago, berriz, gosetea zela eta ahal zen guztia harrapatzen zuten. Zuhaitzekin ere gauza bera gertatzen da orain, pagoarekin, adibidez.

**Zer nahiago duzu, mendiko lana edo herrikoa?**

Herrikoa nahiago dut. Mendiko lanan jende askorekin haserretzen zara.

**Omenaldia espero al zenuen?**

Ez nuen pentsatzen omenaldirik egingo zidatenik eta ez dudala merezi uste dut.

ARESO ▶

## Industrialdeko pabilioi baten teilatua hondoratu da

Elurrak hartutako pisuarengatik egiturak eraman eta sabaia behera joan da

N. GARZIA

Atzo goizean Aresoko Elutse-der industrialguneko pabilioi baten teilatua hondoratu egin zen elurraren pisuarengatik. Mikel Baraibarrek, herriko alkateak, azaldu duen bezala, «egiturak eraman egin du eta ez da lurrera erori garabiaren burni batzuk eutsi diotelako, baina zuloa gelditu da».

Goizeko 08:00ak aldera ondoko pabilioiako langileek izugarriko zarata entzun eta kanpora atera ziren, zer gertatzen zen ikustera. «Suhiltzaileak eta foralak egon dira, kalteak ikusteko. Garbi dagoena zera da, ezin dela bertara inor sartu. Eta ondoren dagoen beste pabilioiak kalteak izan ditzakeen begiratzen ari dira. Sartzerik dagoen edo ez zalanntza dago oraindik», dio Mikel Baraibarrek.

Pabilioi honetan bi enpresek egiten dute lan, Burnnilanek eta M-Latzek. Kanpoan asko ibiltzen direnez, «hau gertatu denean ez ziren hemen». Orain azterketa bat egin beharko dute, zergatik erori den jakin ahal izateko.

Otsoneako meteorologia estazio txoan elurraren jarrapena egin dute: «50 zentimetro daude».

hitza

Harpidedunen  
txokoa

Egin zaitez harpidedun! ▶

HITZaren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beharpenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZaren harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

honetekin  
TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

kanikak  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 945 65 27 46

ILUMINAZIOA  
Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

Avalon  
osagaiak  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

MUGAR  
Nafarroa etorb., 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR  
ONINETAOKAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZaren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Vilabona.** Errenteriako Landarbaso abesbatzak kontzertua eskainiko du 20:30ean Gurea zineman, Jesusen Bihotza Ikastolaren Kultur Astearen barruan.

**Anoeta.** Anoetako aizkolariek eskualdeko aizkolarien arteko apustua antolatu nahi dute bi kanardiko eta 5 oin-biko enbor moztuz, banaka edo binaka. Izen-ematea, 943 651497 telefonoan.

**Tolosa.** Evil code eta Legen beltza musika taldeen kontzertua izango da Bonberenean 22:30ean.

**Amezketak.** Ahotsak plataformaren hitzaldia izango da Amezketa balio anitzeko gelan, 20:00etan. Bertan hainbat alderdi politikoetako emakumeak izango dira Ahotsak-en proiektua azaltzen eta galderak erantzuten.

**Tolosa.** Teatro Estudio San Sebastian taldeak *Cuatro bromas y un funeral* antzezlan eskainiko du Leidor aretoan 20:00etan.

**Tolosa.** Bide Ertzean taldeak *Non dira* azken diskoa aurkeztuko du Abulondo kultur etxean 20:00etan. Sarrera, 3 euro.

**Zizurkil.** Loatzo Musika Eskolak baxlaparta ikastaro bat antolatu du 12 urtetik aurrerakoentzat. Interesatuak 10:00etatik 16:00etara, Zizurkilgo Bulegoan (Bulandegi bidea 23 behea) edo 943 692619 telefonoan eman dezakete izena.

**Ibarra.** Otsailaren 3an izango da Sendi Ekintzako sagardotegi afaria proiektio eta herri kantuekin, 21:00etan. Txartelak salgai daude Familia Gurasoen eta Zubiaurre tabernetan.

**Tolosa.** Tolosa CFko futbolari ohiekin, 35 urtetik gorakoak, beterranoen futbol taldea osatu nahi dute. Interesatuak, ostegunetan 20:00etan Usabalen egiten dituzten entrenamenduetara joan daitezke.

**Tolosa.** 56ko kintoez bere festa egingo dute hilaren 28an: 12:00etan meza San Frantziskon eta ondoren bazkaria Usabal sagardotegian. Izen-ematea, Irrintzi eta Basarri tabernetan.

**Tolosa.** Zainketa klinikoak

eta asistentzialak, haur eta nerabeen zaindariak, optika, etxeko laguntza, geriatzia, inmigrazio teknikari laguntzailea. 200 ordu teoriko eta 100 praktikoko. Inmakulada ikastetxea: 943 673629.

**Anoeta.** Alkartasuna jubilatuen bitzikiko taberna-jatebaxeren ardura hartu nahi duenak, udalarekin eska dezake informazioa.

**Tolosa.** Inauterietako karroza eta konpartsa lehiaketan parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete Aranburu Jauregian.

**Ibarra.** Euskara Zerbitzuak 2007ko egutegiak argitaratu ditu nahi duen orok eskuratu dituzten. Interesatuak udalarekin edota Euskara Zerbitzuan jaso ditzakete dohainik honako ordutegian: 09:00etatik 13:00etara.

**Berastegi.** Otsailaren 3an podologoaren bisita izango da Berastegiko Gaztainondo elkartearen. Interesatuak izena eman dezakete Gaztainondo bertan edota honako telefono zenbakian: 943 68 32 02.

**ERAKUSKETAK**

**Vilabona.** Elpuentea (lehen Carlos Puente de Ambrosio) artistaren pintura eta eskultura erakusketa dago ikusgai Aranburu Jauregian.

**Ibarra.** *Amezgaitorik ez!* izenburupean hiri hondakinen inguruko erakusketa abian da Ibarra Kultur Etxean. Erakusketa gaur arte izango da zabalik 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara.

**Tolosa.** *Emakumeen aurkako indarkeriarik ez* izeneko erakusketa horma-irudien erakusketa dago ikusgai Aranburu jauregian



**Hiru Erregeen Mahaia eta Atxerito mendiak igoko dituzte Oargi mendi elkarteak**

**TOLOSA ▶** Mendiak gustuko dutenek asteburu honetan aukera ederra dute, izan ere, Oargi mendi elkarteak 2007ko egutegiarekin jarraituz, irteera berri bat antolatu du asteburu honetarako. Oraingo Pirinioetara egingo dute txangoa mendizaleek. Parajeak zuri-zuri topatuko dituzte ziurrenik inguru horietan urteko lehen elurtearen ostean, izena eman eta bertara abiatzen direnek. Hiru Erregeen Mahaia —irudian agertzen dena— eta Atxerito mendiak igoko dituzte, hain zuzen ere, eta Linzako aterpean egingo dute lo. Interesadutunek informazio gehiago lor dezakete 637 830380 telefono zenbakian eta bertan eman ahal izango dute izena. HITZA

otsailaren 24ra arte.

**Alegia.** Isabel Mujika tolosararen margolanak Alegi jubilatuen tabernan izango dira ikusgai, otsailaren 12ra arte.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.  
**Tolosa.** Azpiroz, L. Amargoz, 9. 943 67 51 18.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
**Joseba Rojas Gracian**  
(Alegia). Gaur 2 urte. Zorionak eta muxiak ebekoen partetik.



**URTE ASKOAN**  
**Joxelu Larrarte (Irura).**  
Zorionak politte. Muxu pottolo pottolo bat eta ondo pasa.



**URTE ASKOAN**  
**Aitona.** Zure hiru bilobak, Ander, Asier eta Oihana eta familia guztiaren partetik.

**Kontzertua**  
**Urtarrilak 26 • Ostirala**



**bide ertzean zizurkilgo**  
**ATXULONDO kultur etxean**  
**20:00etan**

**Sarrera: 3 euro**





## ETXEBIZITZA: LUXU ETA BEHAR

Etxebizitza edonorentzat beharra bada ere, merkatu librean erosi nahi izanez gero, urte luzez ordaindu beharreko mailegua eskatzea ezinbesteko bihurtu da jende gehienarentzat



BEGOÑA LASA ▶ ERNIO INMOBILIARIARIKO LANGILEA

# «PREZIOAK ORAIN GELDI DAUDE»

Pertsona bakarrarentzat «ia ezinezkoa» dela etxea merkatu librean erostea azaldu du Lasak, eta prezioak orain geldi egon arren, igoko direla ere bai

Ernio inmoiliariariako langilea gaur egun gure eskualdeetan etxebizitzak duen egoeraz eta nagusitzen ari diren joeren gainean zabal aritu da.

**Zein dira gure eskualdeetan batz besteko etxeak gehien saltzen diren lekuak?**

Egia esan, Tolosa eta Ibarra dira nabarmen etxe gehien saltzen diren herriak. Hala ere, orain inguruko herrietan ere eskari handia dago.

**Zenbatean dago metro karretua gutxi gorabehera gure eskualdeetan gaur egun?**

Hori beti ere lekuaren arabera da. Gainera, bi bereizketa egitea beharrezkoa da; etxea berria bada, 3.000 eta 6.000 euro artekoa da prezioa. Aldiz, bigarren eskuko etxea izanez gero, 3.000 euro inguruan dago. Zifra horiek beti ere, batz besteko bat besterik ez direlako kontuan izan behar da.

**Egoera ikusita, gazteek zer biltzen dute?**

Gazteak oro har, aurrekontu zehatz batekin etortzen dira; ba-



Begoña lasa bere lanpostuan.

dakite zein kopurutatik pasatzea duten ezinezkoa. Diru kopuru batera mugatu beharra dago, beraz, etxearen prezioa. **Orain hainbat lekutan modan dago lokal komertzialak etxe-**

**bizitza moduan jartzea. Gure eskualdeetan somatu al duzue horrelakorik?**

Mementuz ez. Ez da hala ere, legez hori neurtuko duen araurik atera eskualdeetarako.

**Zerbait jakina da herri handietan, Tolosa kasu, etxeen prezioak garestiak direla; ondorioz, inguruko herrietara ari da joaten jendea. Desberdintasunik al dago prezioan?**

Orain arte desberdintasuna handiagoa zen. Baina, orain

herri txikiak eskaria gero eta handiagoa denez, herrietan ere prezioak gero eta altuagoak dira. Beraz, orain pixka bat parekatzen ari dira herri txiki eta handien arteko prezioak.

**Etxe bat erostera datorrenak, hala ere, zeri erreparatzen dio gehiago: poltsikoari edo kalitateari?**

Hori bezeroaren arabera da. Normalean, lehenengo etxebizitza erostera datozenean, poltsikoari begiratzen diote.

Baina, lehenagotik etxebizitza bat izan, eta edozein motiborengatik aldatu egin nahi dutenek, ostera, kalitateari eta baldintzei askoz gehiago erreparatzen diete.

**Zure iritziz etxeen prezioek goraka jarraituko dute edo noizbait beherako joera hartuko dute?**

Orain esaterako, etxeen prezioak geldirik daude; ez dira igozten ari. Gainera, duela gutxi etxea erosi dutenak eta saltzeko asmoa dutenak ere merkeago saltzen ari dira. Nolanahi ere, hori betikoa da; merkatu honek beti bide berbera egiten du. Gorantz hasten da, momentu batean —urte batzuetan zehar— gelditu egiten da, eta berriro goraka hasten da. Baina, beheraka hasiko denik ez dut uste; ez litzateke behintzat normalena izango.

**Etxebizitza erosteaz ari gara, baina, alokairuan ere hartzen du jendeak?**

Berez etxea alokairuan hartzeko eskaera badago, baina ez da eskaintzaren adinakoa. Bigarren etxebizitza duen jendeak ez dauka alokatzeko ohiturarik hemen; hutsak utzi ohi dituzte. Gainera, alokairuan hartzen duen jende gehiena kanpotarra da eta eskaintza gutxi dagoenez, orain halabarrez erosten hasi dira.

**Etxebizitza merkatu librean erostea zaila dago, baina, ezinezkoa?**

Egia esateko, pertsona batek bakarrik erosi behar badu, ia ezinezkoa ere bada. Bikote batetaz ari bagara, beti ere errazagoa da ordaintzea. Baina, prezioak dauden bezala soldata batekin oso zaila da gaur egun etxebizitza bat merkatu librean erostea.

**zuhaitzi**  
Zuhaitzengia

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria



**JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ**

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55  
"Cuatro vientos" Industrialdea, 1  
Txarama auzoa • 20491 Leaburu

IGELTSE ROTZA  
FATXADEN ERREHABILITAZIOA  
HORMIGOIZKO ESTRUKTURAK  
ERABATEKO OBRA

**CONSTRUCCIONES LOPETEGI ANAIAK S.L.**

**Jose Ignacio Lopetegui**

Ollarrain auzoa, Etxeberri Etxea, 22 • 20400 TOLOSA (Gipuzkoa)  
Tel./Faxa: 943 69 89 89 • Sakelekoa: 685 72 01 18

**Inmoeki**

943 69 71 96 • 675 705 268 • Korreo Kalea 50 • Tolosa

**ARAMBURU**  
HIGIEZINEN AGENTZIA

Nafarroa Etorbidea, 10  
20400 TOLOSA  
www.aramburu.net  
Tel.: 943 65 17 13 - 677 46 09 16

**HIGIEZINEN AGENTZIA**

**BASABI**

Pablo Gorosabel, 40 • 1. pisua • 7. bulegoa • 20400 TOLOSA  
Tel./Faxa: 943 65 55 87 • Sakelakoa: 669 368 994

**HIGIEZINEN GESTIO AGENTZIA**

**Ernio**

San Frantzisko etorb. 47- behea • TOLOSA  
Tel.: 943 65 50 37 • Faxa: 943 65 09 44  
Posta Elektronikoa: ernio@inmoernio.com  
e-maila: www.inmoernio.com

**PLATZ**  
INMOBILIARIA

Errota 3 - Villabona  
Olatzinmo@euskalnet.net  
943 243 118 - 635 706 728